




Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

**ELIZA BEZALA
JARRAITZEN
DUGU JESUSEN
ATZETIK**

1. GAIA GURASOAK PARROKIAN

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**"Fededun guztiak
elkarturik bizi ziren, eta
dena denentzat
zeukaten"
Eg 2, 44**

1. Helburua

- Eliza, Jesusen misio bera, hau da Berri Ona hots egitea, duten jarraitzaileen elkarte bezala ezagutu.

2. Helburu bereziak

- Jesusek, berarekin egoteko eta bere misioarekin bat egiteko elkartzen diren jarraitzaileen taldea eratzen duela ikusi.
- Elizak, bere ekintzekin, jarraipena ematen dio Berri Onaren zabalkundeari.



Idea nagusiak

- Eliza Jesusen jarraitzaileen elkarte bezala ezagutu
- Jesusen jarraitzaile izan elkartean, bere misioari jarraipena emanaz
- Eta, horregatik, Haren lekukotasuna eman, Berri Ona eta Jainkoaren Erreinua hots eginez.




Ezinbesteko lagungarriak

- Eranskinean fotokopiak.

Garrantzitsua da saioko jardunbidea ulertzeko astia hartzea eta behar izango dugun guztia aldez aurretik prestatzea

A. SAIOA GURASOENTZAT PARROKIAN



Guía de la sesión Para la catequista ...

Saioa, 5 unetan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena (5 minutu). 1. urratsa
- 2. unea: Edukiaren garapena
- 3. unea: Bilketa eta laburpena
- 4. unea: Otoitza eta barneratzea (10 minutu). 6. urratsa.
- 5. unea: Familian bizitzeko (5 minutu).



1. Unea: agurra eta aurkezpena

Aurkezpena: Partaideak agurtu, guztiei ongi etorria adierazi eta saioari ekiteko giro egokia sortu ondoren, laguntzaileak kurtso honetarako helburuak aurkeztu eta sarrera egingo du.

Kurtso berriari ekingo diogu. Udako etenaldiaren ostean, berriz elkartu gara. Zer moduz gaude? Ibilbideari berrekiteko prest?

Saio hauetako partaideen aurkezpen laburra egiteko aprobetxatuko dugu une hau.

Kurtso berri honetan hilean behin egingo ditugun saioen artean lehena ospatuko dugu gaur. Bere helburua, hain zuzen ere, "Eliza Jesusen jarraitzaileen elkarte bezala ezagutzea" da.



1. Urratsa. Hasteko, aurreko kurtsoan landutakoa gogora ekarriko dugu. Horretarako, adieraz ezazue, hitz edo esaldi batez, ikusi edo antzeman zenutena (segundo batzuk emango dizkiegu pentsatzeko...). (I. eranskina).

Titularra

Ondoren, laguntzaileak azalduko du egin genuena:

- Jesus apur bat ezagutzeko aukera izan genuen: nola bizi izan zen, zein zen bere mezua, nola hitz egiten zigun Jainko Aitaz, zein hartu-eman zuen honekin... Zuen jakin-mina piztu nahi izan genuen Jesusen eta bere mezuaren inguruan, on eginez bizi izan zen, bere bizia gure alde eman zuen eta Jainko Aitak berpiztu egin zuen gizonaren inguruan.
- Jesukristo gure fedearen ardatza dela ikusi genuen. Eta kristauok fede hori taldean, elkartean, Elizan bizi dugula.

Hauxe da kurtso honetako helburua: Elizara gerturatu eta Eliza, geure gorabeherekin, hutsegite eta asmatzeekin, Jesusen atzetik joan nahi dugunon talde bezala ezagutu. Fededun gara, Jesusen bizimodua ezagutzeko, ospatzeko eta bera bezala bizitzeko biltzen den elkarteko kide. Geure buruari galdetu behar diogu: zein eginkizun dugu elkarte horretan?, nola islatzen da gure etxean, gure seme-alabekin, gure kristau nortasun hori?

2. Unea. Edukiaren garapena



2. urratsa. Hasteko, **jendeak Elizari buruz zer dioen** ikusiko dugu. Askotariko ideiak, ideia anitzak aurkeztuko dizkizuegu. Lotu harremanen definizio bakoitza dagokiaon komentarioarekin (II eranskina).

Azkenean, bat zatoen definizioa aukeratu.



3. urratsa. Beste urrats bat eman eta pentsa dezagun: Zer da Eliza fededunentzat?

Hainbat irudi emango dizuegu pentsatzeko eta biderapen erraza. Bere errealitate sakonean, Eliza fedetik uler daiteke. Enpresa, elkarte, kluba edo alderdi politikoa baino zerbait gehiago da, hain zuzen ere, Jainkoarengandik eta Jesusengandik ulertzen den misterioa.



Elizako kide gara eta beronengan sinesten dugu, baina nola irudikatzen dugu?

Irudiak eskainiko ditugu izenburuarekin. Zuen ustez Eliza zer den ondoen azaltzen duen marrazkia aukeratu behar duzue (III. eranskina).



4. urratsa. **Jesus da Elizaren jatorria**. Eliza Jesusekin sortzen da. Ez dago Elizarik Jesusen bizitzari eta predikuari lotuta ez bada. Hark jartzen ditu Elizaren oinarriak eta munduan bere misioari jarraipena emateko eginkizuna ematen dio.



Horregatik, orain, laguntzaileak azalpen laburra emango du **“Eliza bezala jarraitzen dugu Jesusen atzetik” katekistentzako eranskinaz** baliatuz eta ideia nagusiak nabarmenduz.

Eta zati honi amaiera emateko, esaldia, ebanjelioko txatala eta galdera jasoten dituen fitxa banatuko diegu partaideei. Aita/amak talde txikietan banatuta, talde bakoitzari esaldi, txatal eta galderaren fitxa bat emango zaio, landu eta galderari erantzun diezaioten (IV. eranskina).

3. Unea. Bilketa eta laburpena: Eliza...da

Eliza...da:

Eliza-elkarte irudia (kartulinaran itsatsita) erabiliko dugu une honetarako. Post-it batean, saio honen inguruan esango genukeen hitza edo esaldia idatziko dugu eta, ondoren, muralean ipiniko dugu (V. eranskina).



Entzuteko, klik egin irudian edo QR kodea



4. Unea. Otoitza eta barneratzea

Eskerrak emango dizkiogu Jesusi elizagatik eta bertako kide izatearen poza agertuko dugu.

Anai-arreben elkarte den Elizako kide izatera deitu gaituzulako,
ESKERRIK ASKO, JESUS!

Elizaren misio eta egitekoetan lagun dezakegulako,
ESKERRIK ASKO, JESUS!

Elizaren bitartez gizon eta emakumeak salbatzen jarraitzen
duzulako,
ESKERRIK ASKO, JESUS!

Eukaristian kristauen batasun eta senidetasuna agertzen
dugulako,
ESKERRIK ASKO, JESUS!

Zure Elizari adore eta sostengu ematen dion Espirituaren
agerpenagatik,
ESKERRIK ASKO, JESUS!



Entzuteko, klik egiteko irudian

5. Unea. Familian bizitzeko

- Egokia da, gure ustez, lehen jaunartzearen aurretik beraiekin noiz edo noiz Eukaristiara joatea eta familia Eukaristian maiztasunez parte hartzea. Bertan biltzen garen guztiok Jesusen jarraitzaile eta bere familiako kide garela azaldu eta Hura gogoratzeko biltzen garela.
- Gauek haurrarekin otoitz egitera, mahaia bedeinkatzera, e.a., ohitu
- Irakurri neskato edo mutikoarekin hasierako kristau elkarten bizimoduaren ingurukoak (Eginak 2, 42-47) eta komentatu.
- Ikus dezala zein egiteko eta konpromiso egin behar dugun familian. Guztiok laguntzen dugu eta horrek erantzunkide egiten gaitu

Elkar otoitz egiteko

*"Aita, lagun iezadazu Jesus egunez egun hobeto ezagutzen
ata, horrela, bere atzetik jarraitzen eta bere taldeko kide izaten.*

*Nire parrokiako gainerako kristauekin batera,
besteei laguntzeko gauza izan nadila".*

I. Eranskina



Titularra



Titularra



Titularra



Titularra



Titularra



Titularra

II. Eranskina. Zer da eliza jendearentzat?"

Iritziak

1 EGUNDOKO
KONOMIA-BOTEREA

2 VATIKANOA

3 AITA SANTUAK ETA
GOTZAINAK

4 ERAIKINA OTOITZ
EGITEKO

Erantzunak

Elizak ehortzi egiten ditu hildakoak, baina honako hau ez da ez jarduera bakarra ezta garrantzitsuena ere. Arreta eskaintzen dio pertsonari bizitzako aldi bakoitzean, eta ez heriotzaren unean bakarrik.

Elizaren misioa zerbitzatzea da, ez ekonomiaren arloan haztea. Jesusen mezua hots egitea da munduan duen eginkizuna. Baina, jakina, dirua ere behar du bere egintzei eusteko eta besteak zerbitzatzeko.

LTenpluari ere eliza esaten zaio, bertan biltzen da-eta elkarte bere fedea ospatzeko. Garrantzitsuena, elkarte da.

Apaiz eta erlijiosoek beren egitekoa dute, baina beraiek bakarrik ez dute Eliza egiten. Laikoak ere Eliza dira eta bertan duten egitekoa garrantzitsu bezain ordezkaezina da. Misio bera dagokigu guztioi.

II. Eranskina. Zer da eliza jendearentzat?"

Opiniones

5 HILDAKOEI
ZUZENDUTAKO
ERAKUNDEA

6 ABADE ETA MOJEN
KONTUA

7 JESUSEN ATZETIK
JARRAITZEN DUTENE
ELKARTEA

Respuestas

Horixe da, hain zuzen ere, Eliza. Jesusek elkarteak eratu zuten Berarengan sinetsi zutenekin. Berak, Espirituaren bitartez, elkarte horretan iraun egingo zuten gizon eta emakume guztiei salbazioa eskaintzeko. Elkarte hori, Eliza da.

Aita Santuaren ohiko egoitza da. Bertan, munduan barrena hedatutako bataiatuez eta Jesusengan sinesten dutenez osaturiko Eliza osoaren zerbitzurako bere gertuko laguntzaileek jarduten dute.

Bataiatu guztiek osatzen duten Eliza. Bertan, dena dela, Apostoluen ondorengo bezala, elkartearen aldeko erantzukizun eta zerbitzurako ministerio berezia dutenak daude.

III. Eranskina. ¿Zer da eliza sinestedunentzat?"

TALDE - ELKARTEA



BATERAKO LANA



III. Eranskina. ¿Zer da eliza sinestedunentzat?"

JESUSEN ISLA



HERRIA ABIAN



III. Eranskina. ¿Zer da eliza sinestedunentzat?"

ELIZA ERANTZUKIDEA



BANATZEN DUEN ELIZA



III. Eranskina. ¿Zer da eliza sinestedunentzat?"

ELIZA SOLIDARIOA



FEDEA OSPATZEN DUEN ELIZA



IV . Eranskina. "Jesus da Elizaren jatorria"

1

Jesusen bizitzako grtaerak

Ebanjelioko txatala

Galdera

Jendetzak jarraitzen du Jesusen atzetik

“Jesus Galilea guztian barrena ibili zen... ainkoaren erregetzaren berri ona hots egiten zuen eta herriko gaitz eta eritasun guztiak sendatzen... Jende-talde handiek jarraitu zioten alde guztietatik: Galilea, Dekapolis , Jerusalem eta Judeatik eta Jordanez beste aldetik”. (Mt 4, 23-25)

Zer dela-eta doa hainbeste jende Jesusen atzetik?

Jesusek ikasleen taldea du bere inguruan

“Ondoren, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta toki guztietara”. (Lk 10, 1)

Zein egiteko agintzen die?

Jesusek Hamabi aukeratzen ditu kide gertuko eta egonkor bezala

“Gero, mendira igo zen, eta berak nahi zituenei dei egin zien. Eta haiek hurbildu egin zitzaizkion. Hamabi izendatu zituen , berarekin bizitzeko eta berri ona hots egitera bidaltzeko, deabruak botatzeko ahalmena emanez”. (Mc 3, 13-15)

¿ Zein zailtasun aurkitzen dugu mundua hobetzeko?

Jesusek, ikaslen taldetik, Pedro aukeratzen du

“Eta nik hau diotsut: Pedro zara zu, eta harkaitz horren gainean eraikiko dut nik neure eliza; eta herioaren indarrak ere ez du menderatuko. Jainkoaren erreinuko giltzak emango dizkizut; zuk mundu honetan lotua zeruan ere loturik geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua zeruan ere askaturik geldituko da.”. (Mt 16, 18 -19).

Zein egiteko uzten du Pedoren esku?

Jesuses apostoluak bidaltzen ditu, Espiritu bere egintzari jarraipena eman diezaioten

“Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaien: «Ahalmen osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz eta nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte»”. (Mt 28 , 28 -20).

Zein misiorekin bidaltzen ditu mundura?

♦1.....

Liburu honetatik hartuta: Confirmados en la fe. Catequesis para la Confirmació n. 2. Katekesirako Galiziako Idazkaritzak. 3. gaia: ¿ Qué es la Iglesia para los creyentes? (15. orrialdea)

V.Eranskina. "Eliz irudia"(bietako bat aukeratu)

TALDE - ELKARTEA



TALDE - ELKARTEA

